

auzo • auzo • auzo • auzo • auzo • auzo

altza


Irratia astea heldu da

altza Irrati Tailerrak bere hirugarren Irrati astea prestatu du. Otsailaren 17an hasi eta 21a bitarte Casares kultur etxean irrati medioarekin zerikusia duten adituek parte hartuko dute hitzaldi eta mahaingurutan.

Egitaraua hiru ekintza nagusitan banatu dute antolatzaileek. Lehenik "irratia amaigabeko solasa" izenburupean astelehenetik-ostiralera mintegi interesgarria izango da arratsaldeko 17.00etatik 19.00etara. Bertan EHUko irakasle eta kazetari ezagunak irratia nontik norakoak aztertzen saiatuko dira.

Egun bakoitzean gai bat

Arratsaldero 19.30etatik aurrera mahainguru eta mintzaldiak iragarri dira. Astelehenean publizitatea izango da mintzagai, irrati duen errealitatea aztertuko dute mahaikideek. Asteartean, berriz, musika izango da aztergai, honetarako irrati formula eta musika irrati esateriak gonbidatu dira. Asteazkeneko txandan euskara, irrati eta komunikatzeko beste moduak mahaigaineratuko dira. Ostegunean, emakumei eman zaie tarte nagusia "La radio tiene nombre de mujer" izenburupean



Hirugarren urtez antolatu du Altzako irrati tailerrak irrati astea otsailaren 17an hasi eta 21a arte.

eta amaitzeko ostiralean futbolak irrati duen eraginaz arituko dira kirol adituak.

Internet eta irrati

Aurtengo berrikuntza

nagusia irrati astearren barruan, Internet sarea sartu izana da. Bertan, sare barruan dauden irratia entzun ahal izango dira, Altza Irrati Tailerraren mezua ikus-entzun

eta irratiei buruzko informazioa eskura ahal izango dugu, astelehenetik-ostiralera 17.00etatik 19.30etara.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

Didaktikoa eta hurbila

altza Irrati Tailerraren ezaugarri nagusiak hiru dira: tailer izena hartzen du kutsu didaktikoa barneratu duelako, gutxiengo batentzako lantzen ditu emankizunak eta partehartze zuzena bultzatzen du.

Ezaugarri hauek egiten dute Altza Irrati Tailerra beste medioetatik ezberdin. Altzan gertatzen denaren ispilu izan nahi

du irratia eta honetarako egunerokotasunean eta kultur programaketan finkatu ditu bere emankizunak. Gaur egungo eta etorkizuneko kultur gertaerei buruzko iritzi foroez arduratzen da, eta gizarte mailan, auzokideen banakako zein taldekako partehartzea bultzatzen du, elkarte kalteuenei behar duten espazioa eskainiz.

NARRIKA
taberna

Narrika 16
Tfnoa.: 42 73 27

Sex **PITILIN** Shop
GORRI

Zure denda erotikoa

MAMUT galeriak. Goiko solairua • Tfnoa.: 49.44.67

- XXX filmeetan aditutako lehen bideo denda
- Multikonda KABINAK eroso eta klimatizatuak
- Panpinak, latex-eko artikulua, kondoia eta hamaika bitxikeria gehiago

AINHOA
taberna

Pintxoak eta kazuelitak

Sarroeta 90, MARTUTENE